


WILHELM VON HUMBOLDT

"Die Vasken" (1801)

Untersuchungen über die Vaskische Sprache und Nation



HUMBOLDT, G.,
1975, *Los vascos o Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en la primavera de 1801*, Donostia: Auñamendi.

Wilhelm von Humboldt (1767-1835) Potsdam-en jaio zen eta Berlin-en hil. Politikari, enbaxadore, jakitun humanista, hizkuntzalari eta pentsalaria izan zen. Alexander naturista eta geografoa Wilhelm-en senidea zen.

Humboldt-i zor zaio Berlingo Unibertsitatearen sortzea; hain zuzen, gaur "Humboldt Uniber-tsitatea" deritzana da, eta berdin Prusiako Hezkuntza erreforma.

Hizkuntzalaritzari toki nabarmena eman zion bere lan intelektualaren barruti orokorragoan. Eta euskarari aparteko arreta jarri zion.

Hizkuntzalaritza modernoaren sortzaile gisa aurkeztu izan da Humboldt, beraren ondoren XIX. mendean ezagutu ziren aurrerapenen aitzindarizat hartuta.

Era berean, euskalaritzarenean ere, neurri handi batean ondoko hizkuntzalarien euskal lana ahalbidetu zuen.

Azpitarratzekoak dira jasotako euskararen albiste sozialak eta Humboldt-en jarrera adituak gure jakitunen artean izandako eragina. Euskal Herriaren eta euskararen albistea modu berrian zabaldu zuen Humboldt-ek.

DIE VASKEN,

oder

Bemerkungen auf einer Reise durch Biscaya und das französische Basquenland im Frühling des Jahrs 1801.

Izenburua gaur egun "Die Basken" bezala agertuko litzateke. "Untersuchungen" hori gaztelaniaz "Apuntaciones" bezala eman izan da.

1799an eta 1801ean Humboldt-ek gurera egindako bidaietan ikusi eta jakindakoen berri eman nahi izan zuen. Begi zoliarekin eta maitasunez begiratu zituen Euskal Herria eta euskara.

Hortik abiatuta etorri ziren gero Humboldt-ek Europan eta garaiko jakitunen artean Euskal Herriaz eta euskarari buruz zabaldu zituenak.

Herriz herri gogorarazten dizkigu 1801ean ikustatu zituenak: Donibane-Lohizune, Donostia, Zarautz, Getaria, Durango, Bilbo, Gernika, Elgoibar, Azpeitia, Oiartzun, Bai-ona.

Gisa ezberdinetan deskribatzen digu herri bakoitzean hizkuntzen egoera, izan ere beti arretaz hartu zuen alde soziolinguistikoa.

Humboldt-en euskararekiko lanek gogoan hartu ziren Europan, eta burututako euskal lanaren inguruan itzulpen, edizio, iruzkin eta azterlanak ugari izan dira gurean.

Euskalaritzaren historian bere lekua aitortu zaio Humboldt-i, hain zuzen bihurtune eta abiapuntu ezaguna baita beronen ekarpena, ondoren garatuko zen eremu horretan.

J. AGIRREAZKUENAGA, J. AZURMENDI (ED.),

Wilhelm von Humboldt:

Un puente entre dos pueblos.

Hezkuntza, Hizkuntza, Euskal Herria,

RIEV 41-2, 1996, 276-667

[Testua ikusteko](#)